

Joxan eta zoriona

Berriro zuekin... tatxan! Joxan!

Itzel interesatuko zaizuen gai bat ekarri dizuet: ZO-RI-O-NA! Zer? Harrituta utzi zaituztet, ezta? Banekien.

Ea, ba. Zerk ematen digu zoriona?

Aitortu behar dizuet nik, lehen, behin baino gehiagotan galdetzen niola neure buruari ditxosozko zoriona non ezkututzen ote zen. Baina bizimodua aldatu nuenetik zoriontsu bizi naiz, bai horixe! Eta youtuberra naizenetik, zer esanik ez! Gero eta jarraitzaile gehiago ditut; laster Kati-Katixak baino gehiago. Ikusiko duzue!

Lehen, berriz, triste bizi nintzen, eta ez zegoen modurik! Tira, bai. Hilaren bukaeran soldata kobratzean, zirrara antzeko bat sentitzen nuen, baina, konturatzerako, zas!, ordaindu beharrekoa ordaindu eta berriro ere... betiko moduan.

Nire inguruko gehienak ere pozik bizi direla esango nuke, ez dute gauza handirik behar, egia esan.

Esate baterako, Arantxa laguna irribarretsu ikustea, munduko gauzarik errazena da: jarri iezaiozu txuleta bat aurrean, eta kitto! Begiak zabal-zabalik jarriko zaizkio, eta, berak ezetz esan arren, lerdea dariola jarriko da di-da batean.

Anaia, berriz, apatiko samar dagoenean, arropa eroatera eraman, eta zast, indarrez betetzen da. "Bua, bua!! Ederra alkandora! Eta prakak! Ze ondo ematen didan kolore honek!" Harrigarria. Beste dimentsio batean sartzen da.

Eta Marisol! Gure Marisolek futbola maite du. Epailearen txilibitua entzun orduko begiak diz-diz jartzen zaizkio. Irribarrea marrazten zaio aurpegian eta ez zaio joaten partida amaitu arte. Begiak klikatu ere ez ditu egiten. Futbola bezalakorik ez dago Marixolentzat!

Eta badakizue zer egin behar den Kati-Katixa pozik ikusteko? Ba, sukaldeko liburu ederren bat oparitu. Errezeta berriekin ikaragarri disfrutatzen du. A, badakit zer egin behar dudan nirekin adiskidetzeko: Indiako errezeta-liburu bat oparituko diot. Bai horixe! Banoa liburu-dendara! Gero arte, lagunok!